BUSTURIAKO LEKOZAISKO TXAKOLINARAKO MAHATS-PARRAK LEHENGORATUZ

ARGAZKIEN, PRENTSA-ARTIKULUEN, ETA PROIEKTU TEKNIKOAREN DOSIERRA (ETA 2)

GALTZAGORRIAK

2002. urtean egindakoa

AURKIBIDEA

A. Nola lehengoratu dira txakolinarako mahats-parrak?
Argazkiekin hitz eginez ..... *3 o.*

B. Nolako ohiartzuna izan du?
Prentsa-artikuluen bilduma ..... *22 o.*

C. Zein material berri sortu da?
Ekimenean sortutako materialak ..... *35 o.*
+ Ekimenaren berri emateko prentsa-oharra ..... 36 o.
+ Ekimenean partehartzeko deialdia zabaltzeko argitaratutako kartel biak ..... 38 o.
+ Lehengoratze-ekimena apoiatzeko argitaraturiko postala eta honen salmenta bultzatzeko prestatutako kartela ..... 43 o.
+ Lekoizaisko mahats-parretan jarritako interpretazio-panela ..... 46 o.
+ Lehengoratze-ekimenaren proiektu teknikoa ..... 49 o.

D. Lan-amaiera deitutako dokumentua ..... *98 o.*

Egunez kandela pizten duen eroak, ez du izango, laister, ezerekin argiztatzeko gauez.

Saadi de Shiraz

BUSTURIAKO LEKOZAISKO TXAKOLINARAKO MAHATS-PARRAK LEHENGORATUZ izenarekin ezaguna den boluntarioen proiektuan Urdaibaiko Galtzagorriak (Gernikako Ekologi Lan Taldea, Aixerreku, Zain Dezagun Urdaibai, Agiri-Arkeologia Taldea, Urdaibai Txatxi), Urdaibaiko Patronatua, Egur ta Harri-Baserrilan E.M.-a, Iñaki Izagirre Eraiketarako Materialak, Bustuariko Udala, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Saila eta hainbat eta hainbat boluntariok hartu du parte. BERAIENTZAT DOA ESKERRIK BEROENA.

A.

NOLA LEHENGORATU DIRA TXAKOLINARAKO MAHATS-PARRAK?

ARGAZKIEKIN HITZ EGINEZ

LEHENGORATZEKO EREMUAREN AUKERAKETA. Pilare tronkokonikodun txakolinarako mahats-parrak lehengoratzen hasi orduko eremu babestu honetan alde desberdinetan aurki zitezkeen egitura desberdinak bilatu eta konparatu egin ziren. Ondoren, lehengoratzeko aproposak zirenak aukeratu egin ziren. Horietatik hemen argazkian ikusten dena aukera zen. Leku ederra (ibilbide polita, nahikoa ondo kontserbatuta, beste ondare gehiago...) zen. Pilare tronkokonikoak pribatuak zirenez negoziatzen hasi ginen, baina akordiorik lortu ez genuenez beste leku bat aukeratu behar izan genuen.

AUKERATUTAKO EREMUA. Busturiako Udalerriko San Bartolomé auzoan, Lekozais aldean kokatuta dago. Goiko argazkian ikus daitekeenez, bertatik Bermeo eta Gernika-Lumo bitarteko Errege Bidea doa. Horretatik ere Arrain eta Ardoaren Ibilbidea doa. Beheko argazkian erdi aroko kaltzada baduela ikus daiteke. Ezaugarri hauek izan ziren, azkenean, eremu hau aukeratzeko arrazoiak.

AUKERATUTAKO EREMUAREN ZENBAIT EZAUGARRI. Pilare tronkokonikoak soilik alde batean, ezkerrekoan hain zuzen ere, Bermeorantz bagoaz. 8o m-ko luzera. Karea-harri harlandugabez eraikita. 15 pilare tronkokoniko behagarriak eta beste 10 bat desagertuta. Pilaren altuera 2,4-2 m-koa. Bidearen zabalera 4-4'70 m-koa da. (Informazio gehiagorako ikus txosten honen baitan gehitu den proposamen teknikoa).

LEHENGORATZEAREN LEHENENGO EKIMENA. Lehendabiziko asteburuan egin genuen. Karea-harri harlandugabeko pareta landarez eta sustraiz garbitzen hasi ginen. Pareta jauzita zegoen tokian harriak atera eta gune hori garbitzen saiatu ginen. Tarteetan pareta erortzeko arriskua ere bazegoen.

HORMA LEHENGORATZEN. Hormaren 20 bat metro desmontatu eta bereraiki behar izan genuen. Lan horrek denboraz aparte, masa ugari ere eskatzen zuen. Goiko argazkian boluntarioak masa egiten ikus daitekeen bitartean, behekoan, hamaiketakoa egiten ikus daiteke, larunbat goizekoa hain zuzen ere.

HORMA LEHENGORATZEN. Horma desmontatzeko asmoa bageneukan, baina ez hain zati luzean. Eskerrak, lehengo asteburu honetan boluntario ugari etorri zela. Goiko argazkian lan horretan ikus daitezke. Behekoan, pilare tronkokonikoak altxatzen. Lurretik gertu zeudenean zuzen-zuzenean egiten genuen. Gogoratu, erdia baino gehiago berreskuratu behar zirela ezkerreko alde honetan.

HORMA LEHENGORATZEN. Lehenengo asteburuaren ostean honela gelditu zen ezkerreko pareta.

PILARE TRONKOKONIKOAK ALTXATZEN. Goiko argazkian, pilareak altxatzen ikus daitezke partehartzaileak. 2,5 m-rarte altxatzeko andamioen laguntza izan genuen. Bertan harriak pilatzea eta jartzea errezago egiten zitzaigun. Harriei dagokionez esan Busturiko beste alde batetik ekarri genituela, horman eta lurrean zegoenarekin ez baizen nahikoa. Beheko argazkian, asteburu honen amaieran Lekozaisko alde honek nolako itxura zihoan hartzen beha daiteke. Lehengoratutako pilareak ugari ziren.

DEIALDIA ZABALTZEN. Igeltserotza lanetan hasi orduko eta hasi ostean, ekimenaren erdi aldera, aukera honen berri emanez kartelak jarri genituen Busturiako auzo guztietan. Deialdi horreetatik pertsona bi etorri zitzaizkigun. Zerbait bada!

HORMAK ALTXATZEN ETA PILAREAK LEHENGORATZEN. Hirugarren asteburu honetan gunearen beheko partean aritu ginen. Hemen hormak garbitu eta pilareak altxatu behar izan ziren. Horrela ikus daiteke goiko argazkian. Beheko argazkian alde bera beha daiteke, baina konponduta.

HORMAK ALTXATZEN ETA PILAREAK LEHENGORATZEN. Goiko argazkian goitik behera begiratuta dago. Pilareak pertsona desberdinek lehengoratu zutenez honelako bakoitzak itxura desberdina erakusten du. Beheko argazkian, ezkerreko landatik begiratuta ikus daitekeena adierazita dago.

ESKUMAKO HORMA ALTXATZEN ETA BERTAKO PILAREEN OINARRIAK JARTZEN. Laugarren asteburuan eskumako horma berreskuratzeari ekin genion. Alde honetan ez zegoen pilareen arrastorik. Ondorioz, lehena goraino altxatu genuen harriekin. Besteak, ordea, soilik oinarria bertan egurrezko zutabeak apoiatzeko.

BIDEA GARBITU ETA LUR BELTZA BANANDU. Asteburu horretan ere bidea garbitu egin genuen. Hormen eta bidearen garbiketatik bolkete osoa bete genuen. Ondoren, pilaren arteko guneak lur beltzez bete genuen, hor mahatsondoak sartzeko. Lur hau, hemen alboan zegoen sasitzatik lortu genuen. Honetarako eta hemengo lan gehienak egiteko bobcat txiki bat erabili genuen.

AROTZ-LANAK. Abuztuaren lehenengo asteburu honetan euriak bere aurpegia erakutsi zuen. Halere, arotz-lanei ekin genien. Egurra bertan zegoen. Bakarrik zegoen moztea eta egur-egitura eraikitzen hastea. Bakarrik!

AROTZ-LANAK. Seigarren asteburuan, eguraldi ona zegoela aprobetxatuz, gogor ekin genion. Denentzat zegoen lana: egurra prestatzen, egurrezko oinarriak jartzen, hagak jozten... Goiko argazkian hala ikus daiteke. Behekoan, egun honen amaieran nola geldítu zen beha daiteke.

AROTZGINTZA. Abuztuaren azken egunean jo ta su egitea erabaki genuen. Hasi eta amaitu. Aurreko egunetako esperientzia bageneukan. Bagenekien beraz non behar zen jendea eta non ez. Nola antolatu. Batzuk, prestatzen eta besteak, jartzen.

AZKEN EMAITZA. Goiko argazkian ikus daiteke nola geldítu zen bidearen beheko partea, seguruenez eremurik zailena. Zapatak arriar burdinekin lotu ziren eta masarekin azken ukitua eman zitzaion. Beheko argazkian, azarotik aurrera egin beharreko lana lana erakutsi nahi izan da. Pilaren alboan, ezkerreko horman zein eskumakoan mahatsondoak sartuko dira oinarrian. Hala bedi!